## 1. Kontua sortu: www.dropbox.com

https://www.dropbox.com/login#register

Goiko helbidera joan orduko, beheko pantaila azalduko da.

Lehenengo bi eremuetan, izena eta abizena eskatzen du.
Hirugarrenean, “Email”, zuen posta-helbidea idatzi, Erabiltzaile izen-gisa erabiliko da.
Laugarrenean, pasahitza (nahi duzuena).
“Create account” botoian, klik.

Kontua berehala sortzen da.




Kontua sortu ahala, barruan azalduko gara. Fitxategiak kudeatzen hasteko, egin klik “Files” izeneko aukeran.




Funtzio nagusiak, irudian azpimarratutakoak dira: “Upload” fitxategiak” igotzeko – “Create folder” karpeta berriak sortzeko – “Sahare a folder” karpeta bat DropBoxeko beste erabiltzaile batzuekin partekatzeko.

“Public” izeneko karpetaren barruan jartzen den edukia, Internet bitartez eskuragarri jar daiteke, Hortik kanpo dagoena eskuratu ahal izateko, erabiltzaile-izena eta pasahitza behar da.




## 2. Fitxategiak igo

Beheko irudian, “Public” izeneko karpetaren barruan sortu den “Berria” karpetan kokatu gara. “Upload” agindua eman da, beraz, igotzen diren fitxtaegiak, karpeta horrretan kokatuko dira.




Fitxategiak igotzeko, lehendabizi, aukeratu egin behar dira. “Choose files” botoian, klik. 300 Mb baino txikiagoak diren fitxategiak igo daitezke. Hortik gorakoak igotzeko, “sinkronizazio” aplikazioa erabili behar da (ikus, 4. puntua).




Fitxategiak aukeratu eta gero, igotzeko agindua eman, “Start upload”, klik.




### 3. Fitxategiak kudeatu

Fitxategiak igo dira. Bakoitzarekin zer egin daitekeen ikusteko, egin klik eskuin aldean dagoen gezitxoan.

Oraindik “Berria” izeneko karpetan gaude. Lekuz aldatu nahi izanez gero, egin klik “Parent folder” gezitxo berdean, eta “goragoko” karpetara jonago gara. Honela nabigatzen da DropBox-en.


My Dropbox » Public » Berria
Upload
Create folder
More actions
Name
Size
Modified
Parent folder
bideo_berria.wmv
3.75MB
2 secs ago
galaxia lh5_0001.flv
26.57MB
hippoworks-comfy-kids...60_464k.flv
1.58MB
Previous versions
Copy public link
Download file
Move...
Rename...
Copy file to...
Delete...